

***Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua inprimatu aurreko bertsio bat da.**

Ibarluzea San Esteban, Miren. 2013, Patziku Perurena, Koloreak euskal usarioan. J. Kortazar (ed.), Egungo euskal saiakeraren historia. 61-65. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-9860-829-8.

Egilea: Miren Ibarluzea

KOLOREAK EUSKAL USARIOAN

Patziku Perurena

Koloreek euskal kulturaren eta hizkuntzaren duten lekuari eta bilakaerari buruzko hausnarketa-
da Patziku Perurenak *Koloreak euskal usarioan* saiakera-lanean dakarrena.

Erein argialetxeak argitaratu zuen lana, 1992an, "Saiopaperak" izeneko saiakera-bilduman.
Urte berean, lan horrek jaso zuen II. Koldo Mitxelena saria, eta nabarmentzekoa da,
halaber, 1998an berrargitaratu egin zela lana.

Patziku Perurena idazle goizuetarra euskaraz egindako literatur sorkuntzaren poesiaren
alorrean estreinatu bazen ere, sarri aritu izan da prosan. Artikulu anitz idatzi ditu han-hor-
hemen (artikulu-bildumak ere baditu argitaratuta), eta, saiakerari gagozkiolarik, hainbat lan
eman ditu argitara.

Harripilatan ezkututzen zeneko apo tipiaren burutazioak (1990) izan zen egilearen lehenbiziko
saiakera-lana: mendebaleko gizartearen azterketa eta kritika morala da, apo baten ahotsetik.
Ondoren etorri zen aztergai dugun hau, *Koloreak euskal usarioan* (1992), ahozko zein
idatzizko euskal literaturan koloreek duten esanahiaz hitz egiten duena. Aurreko horren
osagarria da, nolabait, 1993an argitaratutako *Euskarak sorgindutako numeroak*: koloreen
sinbolismotik zenbakienera igarota, horrako horretan zenbakien zentzuaz ari da egilea.
Koloreen eta zenbakien inguruko bi saiakera-lan horietan ahozko iturriak zein idatzizko
dokumentazioa baliatu zituen egileak. Esan daiteke ahozko komunikazioaren bitartez

bildutako materialak garrantzi handia duela egilearen lanetan; izan ere, gerora argitaratutako beste lan batzuetan ere oinarri-oinarrizkoa da ahozko tradizioa. *Leitzako errege-erreginak* (1996) liburuan, esaterako, Leitzako helduen ahotik entzundako istorioak jasotzen dira. Bestalde, dialektologia-lanetan (*Goizueta eta Aranoko hizkerak*, 1999) ibili denean ere, ahozko testigantzak erabili ditu Perurenak. Bestalde, argitaratu izan dituen artikuluen bildumetan froga daitekeenez (*Zurian zirikak*, 1995; *Etorrerakoak*, 1998; *Trapuan pupua*, 2001), gainerako idazleen esanei buruzkoak hausnartzen eta inguruari eta inguruko gertakariari erreparatuta gogoetatzen eta interpretatzen jaioa da egilea.

Dagokigun lanean, kapitulu bakoitzak kolore bat (edo kolore multzo bat) du ardatz: “Sarrera gisakoa, aurrez eginak gogoan”, “Beltza, kolore ar azkarra”, “Berdea, gure kolore arrotza”, “Gorria, kolore zintzo bizia”, “Horia, ekialdeko kolore kristaua”, “Urdina, kolore nahasi hotza”, “Zuria, kolore izuna ala zina”, “Kolore nahasiak eta antzekoak”. Kapituluak ordenatzeko greziar kulturaren zazpi koloreak hartzen badira ere, sailkapen klasiko horretara egokitzen ez diren berezitasunak ere ematen ditu egileak, eta kapituluz kapitulu eta kolorez kolore, sinbologia-azterketa orokorragoei lotzen dizkie Perurenak gurean ahoz zein idatziz (herrian, lagunarteko hizketaldietan, galdetegietan, hiztegietan, tradizioko literatur lanetan zein berriagoetan...) jaso izan diren kolore-hitzen erabilerak. Izan ere, egileak berak dioenez, *kolorearen eremu semantikoa era desberdinetara mugatu izan du hizkuntza eta kultura bakoitzak (...) kolorea unibertsala da berez eta izatez. Kolore izenak edo koloreei buruzko literatura, ordea, tokian tokikoa, herrian herrikoa* (11). Hala ere, badirudi koloreen sinbolismoan eta erabileran ere globalizaziorako joera dugula euskaldunok.

Ahokotasunak leku nabarmena du Goizuettarraren saiakera-lanetan . Ahokotasuna hizkuntzari eta etnografiari dagokio, eta *Koloreak euskal usarioan* lanean, hain zuzen ere, funtsezkoak dira hizkuntza- eta etnografia-deskribapenak. Nolabait, hortxe du oinarria liburuak, eta koloreei buruz ahoz zein idatziz, etxean zein kalean, gurean zein atzerrian... jasotakoak biltzen dira.

Ahozko erabileren adibide dira bertso zaharren, baladen, herri-kanten eta abarren zatitxoak ez eze, ipuinak, kondairak, toponimoak, izendegiak edo goitizenak eta errefauak. Batzuetan egileak berak testuak arakatzen aurkitutako adibideak dira, eta, beste batzuetan, beste inork bildutakoak; adibidez, Azkuek, Lekuonak zein Satrustegik jasotakoak. Bertsolari zaharren berbak ere aipatzen dira (Txirrita, Basarri, Bilintx Zapirain, Udarregi...), betiere koloreen aipamenak egiten direnean eta koloreen sinbologia azaltzeko balio dutenean.

Koloreen erabileren idatzizko adibideak ere tartekatzen ditu Perurenak bere saiakeran. Idazle klasikoenetik edan du adibideak emateko, eta, besteak beste, Mogel, Orixe, Urruzuno, Mirande, Lizardi, Lauaxeta, Barbier, Chaho, Tartas, Txomin Agirre... aipatzen dira, eurek idatzitako bertso, esaldi zein testu zatiak emanez. Idazle berriagoen adibideak ere badira, esaterako, Eñaut Etxamendirenak, Joseba Sarrionandiarenak edo Koldo Izagirrearenak.

Lantzean euskal testuak erdaraz emateko moduez ere aritzen da Perurena, kolore-hitzen itzulpenez, alegia. Baloratu ere egiten ditu erdaratzeak zenbaitetan: *Barka bekit Eduardok, berari esker egiten diodan oharpen hau, baina, ni nago, itzulpen horrek ez ote duen jasotzen jatorrizko "nabar" eder horren muina, eta Miranderentzat inportantzia handikoa bide zenekoa* (231).

Etimologiekin eta kronologiarekin ere ausartzen da: *Gordin hitza gorri hitzaren senide dela dirudi* (70); *Belar ebateko berdangilloa tresna ere berdetik bide dator* (79); *hori hitza oso berandu sortu delakoan nago* (128). Hala ere, onartzen du kontu delikatua dela etimologiena. Hara zer dioen "zurito" hitzaz ari dela: *Euskal jatorrikoa ote da? Ba ote du deus ikusirik kolore zuriaekin? Horra nire zalantzak. Izan ere, munduan ez baita hitz baten zinezko historia aurkitzea baino gauza zailagorik.* (219).

Perurenak gorazarre modukoa egiten die "Eskerrak" izeneko atalean koloreen sinbologiari buruzko datuak helarazi izan dizkiotenei: Piarres Lartabali, Txillardegiri, Sarrionandiari eta Mikel Azurmendiri. Arloan jorratutako bidearen aitortza egiten die. Sarrionandiaren eragina beste askotan aipatu izan du Perurenak: literaturara hurbildu izana Sarrionandiari esker gertatu zela esan izan du, esaterako.

Euskal saiogile horien lanetatik jasotakoaz gain, Patziku Perurenaren iturri dira, halaber, sinbologia unibertsalaz eginiko azterketak edo hiztegiak –R. Boyle, J.E. Cirlot, J.W. Goethe, V. Turner–). Nolanahi ere, egile horietara euskal saiogileen aipuetatik iristen da, eta badirudi badirudi egileak ez duela zuzenean jo koloreen sinbologiaz aritu izan diren beste egile batzuegana. Bibliografian, behintzat, euskal egileek aipatu izan dituztenak baino ez zaizkigu agertzen orokorrean.

Koloreak euskal usarioan testu-bilketa zein etnografia-lana izateaz haratago, antropologia-lana ere badela esan daiteke, jasotako datuak deskribatu ez eze, konparazioak eta interpretazioak egiten direlako. Hona hemen zenbait adibide, egilearen beraren balorazioen erakusgarri: *Nire irudiko, ordea, bere larrujeari zor dion izena luke* (97); *Iristen ote da haraino Lizardi poetaren gogoa, udaberriari neskatx urdin deitzean? Ezetz uste nik* (152); *Arrosnabar hitzak harrizzen nau ni*

gehiena. Arrosa nabarra denik ezi bait dut inon aditu. Zergatik orduan arrosnabar hitz enigmatiko hori? Bi arrazoibide ikusten dizkiot, hola, sostekoan emateko (228).

Antropologia-lan xumea litzateke, noski: ez lan akademikoa. Antropologia-ikerketan pertsonal antzekoa da, zelanbait esatearren. Ukitu eta iritzi pertsonalez betetako lana da, eta, gainera, norberak entzundakoak eta bizi izandakoak testuratzeko indartu eta berretsi egiten du nonbait irakurria. Ahoz gabiltzanean darabilgun teknika da hori: norberak ikusi edo entzun duen horrek egia-izaera ematen dio kontatzen denari: *Pasarte bat datorkit gogora (77)*; *Neroni ere haurtzaroan maiatz aditua naitz esaldi hau artzainen abotik (91)*; *Gure aitari ere frankotan aditu izan diot (...)* (202); *neronek haurtto nintzenetik behin baino gehiagotan frogatua baitakit (...)* (202).

Hain zuzen ere, bilketari ukitu propioa eranstea omen da Patziku Perurenaren ezaugarri behinenetako bat literatur kritikarien arabera. Iratxe Retolaza literatur ikertzaileak ondo laburbiltzen du:

“Lekukotasun anitzen bitartez ahots-sare bizia eratu du Patziku Perurenak, eta, ziur asko, saiakera taxutzeko molde horrek egiten du berezi eta pertsonal Perurena saio-egilearen idaztankera. Xabier Altzibarrek (2000, 626) eta Jimeno Juriok (Bidador, 2004, 325) adierazi izan dute Patziku Perurenaren saiakerek izaera pertsonala dutela. Jimeno Jurioren ustez, Perurenak saiakera-mota berri bat garatu du, ahozko tradizioa eta dokumentazio historikoa maisuki uztartu dituen diskurtso-moldea eratu duelako.

Koloreak euskal usarioan saiakeran ahots pertsonal eta bizia garatu du egileak, diskurtso teorikoaren eta gogoetatsuen ondoan anekdota pertsonalak tartekatu ditu”.

(Retolaza: *Euskal Literaturaren hiztegia, Idazlanak*)

Saiakeraren hizkuntzari eta erregistroari dagokienez, Perurenak oso estilo zuzena darabilela esan dezakegu, askotan ahozkotik oso gertu dagoena. Irakurlearenera gerturatzeko, gainera, dei egiten dio sarritan: *Horra hor euskal bazterrak, hor euskal ubibertso zaharra, zuk kolorez nortasuna eman zain. Horra gure nortasuna zuk bizkortu zain (14)*; *Zaude lasai, irakurle, (...)* (16); *Izan ere, begira ezaizu gure ingurumaria (...)* (128).

Nafarroako ukituz bustitako euskararen idatzita, *Koloreak euskal usarioan* saiakera funtsezko bibliografia-iturri da gaur egun gaiaren inguruan egiten diren lanetarako. Hala da, esaterako, Eusko Jaurlaritzak berriki argitaratutako *Euskarak erakutsi koloreak ikusten* (Euskara mintzagai 6) koloreei buruzko dibulgazio-lanean.

BIBLIOGRAFIA

CHEVALIER, Jean eta GHEERBRANT, Alain: *Dictionnaire des symboles, Mythes, rêves, coutumes, gestes, formes, figures, couleurs, nombres*, Robert Laffont, Paris 1982.

PERURENA, Patziku: *Koloreak euskal usarioan*, Erein, 1992

PRECIADO, Txema: *Euskarak erakutsi koloreak ikusten (Euskara mintzagai bilduma 6)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz, 2009

RETOLAZA, Iratxe: *Koloreak euskal usarioan*, Euskal Literaturaren Hiztegia – Idazlanak, EHU, linean: <http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=740>

SARRIONANDIA, Joseba: *Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela, 1994

SERRANO, Amaia: *Patziku Perurena*, Euskal Literaturaren Hiztegia – Idazleak, EHU, linean: <http://www.ehu.es/ehg/literatura/idazleak/?p=820>